

Testuak: Aritz MALDONADO



URBIL KILOMETROAK

Utzi ezazu kotxea Urbil-en Usurbilera eroso gerturatzeko eta geratu zaitez gurekin Kilometroak bukatu eta gero.

BOULEVARD • DAMASC KEBAB • ECEIZA
McDONALD'S • MORRISON'S
PEREGRINUS • PLAZA CAFÉ BAR • TXINPARTA
KORNEER CAFÉ • WOK KAIXO



MADE IN YOU

Frankismo garaian sortu zen Usurbilgo ikastolak 700 ikasle inguru ditu gaur egun

Auzolanean, euskararen ttakunari eusten

Urte berezia izaten ari da aurtengo a Usurbilgo herriarentzat. Kilometroak jaialdia dela-eta, herritarrak tainako erronkari erantzuteko lanean ibili dira. Bere garaian Udarregi ikastolaren sorreran izan zen bezalako elkarlana bizitzen ari da herria. «Ikastolaren mugak gainditu eta herri osoa zipriztindu du Kilometroaren antolaketak», dio Mariaje Imaz Udarregiko zuzendariak. Usurbilen ospatuko den lehenbiziko aldia izateak ere lagundu du horretan.

Iazko udazkenean Orioko ikastolaren eskutik lekukoa jasozuten unetik, buru-belarri ari dira lanean Gipuzkoako ikastolen aldeko festa bikaina izateko. Auzolana omentzea da asmoa, beraz. Izan ere, Udarregi ikastolaren sorreran parte hartu zutenek asko dakite horri buruz. «Dena zegoen egiteko, eta guzti hori geundenon artean egitea zegokigun, hau da, gurasook egin behar izan genuen».

Hain zuzen ere, orduan bezala ibiltzen dira egun jaialdiko antolatzaileak, ahal den lekutik lanerako denbora ateraz. «Goratzon naiz –dio ikasle ohi batek–, nire aita larunbatetan libre zuenean eskola txukuntzera joaten zela».

Udarregiri omenaldia, Kilometroak jaialdia ospatuko den urte berean egitea dagokio



1968an jaiotako Udarregi ikastola izugarri hazi da. Argazkian, ikastolako gela bat.

Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

ikaslarari, 2015. urtea borobilduz. Hala ere, auzolana bere horretan ez da izango protagonista bakarra. Kilometroak jaialdia zein Udarregi ikastolaren hezkuntza proiektua baliobatzuen gainean eraikiko da. 2015eko Kilometroak jaia aitzindari izango da parekidesunean, jasangarritasunean eta inklusibotasunean, «aurrekoen bertute guztiak ere izateaz gainera», Imazen hitzetan.

Usurbilen hain errotuta dagoen auzolana ere kontuan hartuko da, nola ez. Horietan sakontzeko lehen harriak ezarri nahi dira jaialdiarekin, os-

tean harri horien gainean eraikitzeko.

Frankismo erdian jaio zen Udarregi, 1968. urtean. Espainiak inposaturiko espainiar Eskola Nazionalari erantzun gisa, umeei bestelako heziketa bat eskaini ahal izateko. «Gure herriarentzat izango zen zerbait sortzea zen gure asmoa», azaldu dute ikasle ohi batzuek.

Garai horretan, hiru eskola zeuden herriko kaxkoan eta «Kalexar»-en: Nazionalak, La Salle eta Concepcion. Garai horretan sortu zen Udarregi patronatua, Felix Aizpurua buru zela; Udaletxetik, berriz, Lasalletarren eta Mojen ikastetxea hobe-

tzeari ekin zioten. Urte horietan, baita, Lasarteko Lander ikastola eta Usurbilgo Luberri ikastolak batu egin ziren, eta Landaberri ikastola sortu zen; 1977. urtean, berriz, bi ikastola horiek Zubietako hipodromoaren gaineko eraikuntzan egokitu ziren.

HERRIAREN BABESA

Udarregi Patronatuak estatutuak berritu zituen garaian Lanbide Eskola baten beharra zegoela azaleratu zen. Horrela, 1979ko ikasturtean Lanbide Eskola jarri zen martxan 80 neska mutil eta bost irakasle eta idazkari batekin. Bestalde, urte hori

garrantzitsua izan zen eskolaurra hartzen ari zen tamainagatik. Ordurako, gainera, euskara hutsean ematen ari ziren OHOKO lehen mailan.

1980az geroztik, Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko kidea da Udarregi ikastola. Eta gaur egun, herrian oso itsatsia dagoen kooperatiba bat da. Herriak ez ezik, udaletxeak berak ere babesten du Udarregi.

Egun, 700 ikasle inguru dituzentzako. Izugarri hazi den arren, ikasleekiko gertutasunak ikastolaren ardatzetako bat izaten jarraitzen du, eta familien eta irakasleen arteko harremanak zaintzen dira oraindik. Kilometroak bezalako ekimen batek are gehiago lotuko du Udarregiko familia.

Udarregi ikastolaren lehenbiziko pausoei buruz gehiago jakiteko, eta batez ere, ondorengoei ezagutzera emateko, dokumentala egin dute Aitziber Elortza eta Jexux Agirresarobe gurasoek.

2015eko Kilometroetako logotipoa eta leloa Intza Salsamendik eta Lur Etxeberrriak sortu dituzte, eta ideia ugari batu nahi izan dituzte hauen baitan. Gattunk hitzak «gara» aditzarekin jotzen du, eta hitanoaren bidez lagunartea konfiantza eta gertutasuna islatzen ditu; neska zein mutilen markak jasota, gainera, genero berdintasunaren ikuspegia ere biltzen da.

Bestalde, «t» biak hizki larriz jarrita, txalapartaren onomatopeiari keinu egitea nahi zuten egileek.

Euskara gure lan tresna

Euskara gure hizkuntza eta eguneroko erronka.

g!UNK
KMK 2015 USURBIL

FAGOR

FAGOR ARRASATE Koop. E.

www.fagorarrasate.com



Zer moduzkoa izan da azken txanpa?

Ilusio handiz aritu gara. Usurbilen Kilometroak ospatuko den lehenbiziko urtea delako, batez ere. Hainbat urte daramatzagu hemen ospatzeko eskatzen, eta azkenean lortu dugu. Herriak ere primeran erantzun duela uste dugu. Alde batetik, badugu beldur pixka bat, baina beldur polita da; hau da, bertigoa dugu ekimen handia delako, baina erronka legez hartu dugu. Ekimen handia da, baina gure helburua ez da kontzertu erraldoi batzuk antolatzea; gure apustua herrigintzan eragitea da. Horretarako, hiru zeharlerro lehenetsiko ditugu: inklusibitatea, jasangarritasuna eta parekidetasuna.

Herriaren erantzuna zer moduzkoa izaten ari da?

Usurbilen, hezkuntza aldetik ez dago beste eskaintzarik, eta horrek eragina du ikastolaren eta herritarren arteko harremanean; oso estua da, halere, ez gara herritar guztiengana iristen. Kilometroak aurkeztu genuenean ere esan genuen, gurea ez da Ikastolakoen jai hutsa, usurbildar guztien jai izatea nahi dugu. Eta hasiera batean horrela izango dela dirudi, oso lanketa ona egin baita.

Inklusibitatea, jasangarritasuna eta parekidetasuna landuko dituzue Kilometroak honetan. Zer esan nahi duzue?

Esan bezala, gure helburua herrigintzan eragitea da. Festaren bidez ere eragin daiteke eguneroan, eta jendea horretaz ohartzea nahi dugu, gure lehenbiziko harria izango da bide horretan. Gainera, hiru balio horiek ez dira Kilometroetara mugatuko. Udarregin, urte osoan zehar tailerrak egin ditugu ikasleekin inklusibitatea lantze-

«Gure helburua ez da jai erraldoi bat antolatzea, herrigintzan eragitea baizik»

XABIER ALUSTIZA

Udarregi ikastolako lehendakaria

Erronka handia dela jakin arren, ilusioz beterik dago Xabier Alustiza Udarregi ikastolako lehendakaria Usurbilgo lehenbiziko Kilometroak antolatzeko.

ko; bestalde, jasangarritasunari dagokionez, herri nahiko kontzientziatua garela uste dugu. Halere, neurriak hartuko ditugu, adibidez, iturriko ura eskaintzea lehenetsiko da txosnetan.

Eta behin Kilometroak igarota, zer geratuko da herrian?

Gauzak neurtzea ez da erraza izaten, halere, Usurbilen ikastolaren inguruan jende asko biltzen dela esan daiteke. Aurten, ordea, esan daiteke jende hori berriro ere lanean jarri dela ikastolen mugimenduaren alde, are gehiago estutu dela harreman hori. Egun ikastolarekin lotura zuzena ez dutenek ere konpromisoak hartzea lortu dugu. Gaurko honetan jendea ez da etxean geratuko, eta aurrera begira ere, batzordeetan biltzeko joerak hartuak ditugu jada. Jaietan, adibidez, azkeneko bi urteetan txosna ezarri dugu, eta hau mantentzeko asmoa dago. Hurbileko jende askok elkar ezagutu du prozesu honek iraun duen denboran zehar; hainbeste hila-betez batzordeetan biltzen ibili eta gero, orain 23 eta 55 urteko



Argazkia: Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

jendea lagun egin dela ikusi ahal dugu eta hori oso pozgarria da, bai ikastolarentzat, bai Usurbilarentzat ere. Azken batean, belaunaldien arteko zubiak eraiki dira hilabeteotan.

Zertara bideratuko da lortuko den dirua?

Udarregi ikastolan eraikin berria egin dugu, Haur Hezkuntzarako. Dirua hori ordaintzera bideratuko dugu, Kilometroak egin aurretik ere proiektua bideragarria zen arren. Herri honetan badakigu zer-nolako eguraldia egin ohi duen, hori dela eta, frontoia estaltzea gustatuko

litzaiguke. Ateratzen dugun irabaziaren arabera, horra ere bideratuko litzateke kantitate bat.

Zer moduzko osasuna du euskarak Usurbilen?

Euskal Herriko beste herri batzuekin alderatuz gero, euskaraz gehiago hitz egiten da hemen. Halere, zantzu kezkarriak agertu dira; euskara eta erdara nahasten ari dira, eta hori kezkatzekoa da. Erabileraren alde beti egin behar da borroka. Halere, badira berri pozgarriak ere, adibidez, hamabi urte ingurutik jada umeak hika hitz egiten hasi ohi dira oraindik ere.

Azken mezurik?

Ikaragarritzko festa izango da, hori dela eta, jendeari gonbita luzatu nahi diot Usurbilera hurbiltzera. Giro herrikoia gustuko duenak, aurkituko du; kontzertuak gustuko dituenak ere badu nora etorri. Festarako gogoia itzela da, eta giro polita egongo da. Gainera, Usurbil ezagutzen ez duenarentzat ere aukera ona da; frontoia eta kaskoa baino gehiago da, eta gozatu dezala gure herriaz.

MARCOS
Okindegia

Ubarburu pasealekua, 113
27. Industrialdea · ASTIGARRAGA
Tel.: 943 45 09 66 · F. 943 11 67 28



gtlunk
KMK 2015 USURBIL

 **Usurbilgo udala**

Euskararekin guztiok batera (h)ari gattunk!

Ikastolaren ibilbide osoan zehar bezala, auzolanak Udarregi ikastolaren proiektuaren oinarrian jarraituko du. Hezkuntza proiektu hori eraikin berriarekin bultzatzea nahi da, eta bertan, ikastolako kideek eraiki nahi dituzten balioak txertaturik joango dira. Balio horien artean kokatzen dira, besteak beste, Kilometroak jai parekideago, jasangarriago eta inklusiboagoa izateko egiten ari diren urratsak. Zeharlerro horiek Gipuzkoako ikastolen aldeko jaialdiaren harira antolatu diren ekitaldi guztietan izan dute eragina.

“Lotzen gaTTunk” da aurtengo leloa, eta abestiaren ardatza ere bai. Jakoba Errekondok jarri dizkio hitzak herriko musikari ezberdinek sortu duten abestiari. Lana egiteko modua berria izan arren, gustura moldatu dira protagonistak. «Aipatzekoa da musikaren letrak shock egoeran utzi gintuela hasieran, ezohikoa eta irregularra delako, baina hori gainditu eta gero letraren magiak bizia hartu zuen», adierazi zuten aurkezpen ekitaldian.

BIDEOKLIP BEREZIA

Usurbildarrak izan arren, musikariak ez zuten inoiz elkarrekin jo abesti hau grabatu aurretik, eta horrek ere magia berezia eman zien beren pausoei. Antolatzaileak ere pozik daude emaitzarekin, eta datozen jaialdietarako mugarrira izatea nahi dute. «Hurrengo urteetarako baliagarria izatea nahi dugu, are gehiago, honakoa ez da Usurbilen gelditzea nahi dugun proiektua, pixkanaka Euskal Herri osoko proiektu bilakatzea nahi dugu».

“Lotzen gattunk” abestiaren bideoan, berriz, Udarregi ikasto-

lako umeak euskararen iratxo bihurtu dituzte. Aipatu diren balioek abestiaren bideoklipetan ere izan dute eragina. Txalapartaren irudiekin hasten da bideoa, Usurbilekin duen lotura estua erakusteko.

Ez da kasualitatea instrumentu hau hautatzea, beraz. «Hirurogeiko hamarkadan galtzeko zorian egon zen txalaparta, baina Usurbil eta inguruko herrietan mantendu egin zen, eta gaur egungo jendartearen bizirik dagoen tresna bat da; euskararekin ere ahalegin horietan ari gara».

Txalapartariak basoko izpirituak dei egiten diete, eta hauek buruhandi-iratxo legeaz agertzen dira. Hauek herrira jaitsiko dira, eta bidean aurkitzen dituzten lanbideetako langileekin ahotik ateratako sokak bilduko dute; soka horrek euskararen metafora izan nahi du, herritarrek euskarak lotzen dituela irudikatzeko. Usurbilgo plazara iristean, langileak lotzen dituen sokak elkartu, eta denak batera lanean jarriko dituzte: hortik dator, «Euskararekin, denok batera (h)ari gattunk». Hamaika herritarren parte-hartzea izan du abestiaren bideoklipak, euskara sinbolizatzen duen sokak lotzen dituelarik guztiak. Herritar guztiak bildu, eta euskararen sokari jarraiki lan egiten dute usurbildarrek. Udarregin eta Kilometroak jaialdian bezala, auzolana egon da bideoaren filmazioaren oinarrian.

Herritarren artean arrakasta itzela lortu zuen bideoklipak; izan ere, eginiko bi aurkezpen ekitaldietan Sutegi betetzea lortu zen. Sare sozialetan ere, jarraipen handia izan du ikusentzunezko lanak, eta 25.000



Aurtengo abestiaren bideoklipa egiteko lanetan ikastolako ikasleek zein hamaika herritarrek hartu dute parte. Beraz, auzolana egon da bideoaren oinarrian.
KILOMETROAK

ikustaldi baino gehiago zenbatzen ditu.

Udarregi ikastolak antolatu duena Usurbilen ospatuko den lehenbiziko Kilometroak jaia izango da. Herritarrek urte askoan itxaron dute ardura hau, eta behin iritsita, guztia eman dute. Horren erakusgarri da Kilometroak15-aren alde eginiko kantaldi erraldoia. Dantatzeko eta abesteko prest, ehunka usurbildar Mikel Laboa plazan bildu ziren irailean, eta bertan “Lotzen gattunk” ereserkia abestu zuten, batera. Erronka handiari erantzun erraldoia eman zieten herritarrek.

Ikastolako irakaslea den Jaione Eskudero koordinatu zuen saioa.

Joan Mari Torrealda arduratuko da Usurbilgo Kilometroei hasiera emateaz. Bideoklipetan agertzen den sokari segida emateko, hasierako zinta hori ere soka bat izango da. Torrealda hori mozteaz arduratuko da. Modu honetan, Udarregi ikastolak merzitako omenaldia eskaini nahi dio kazetari eta soziologo ezagunari. Usurbilekin harreman estua du, berez, Foruan (Bizkaia) jaioetako Torrealdaik. Bere bizitza osoan zehar liburu eta artikulak idatzi ditu.

LOTZEN GATTUNK

Lokarri lixtari sokari hari lotu GaTTunk harira.
Hariketan ari. Harik eta behar den artean ari
Hari artean
Hari tira Hari hari tira
ahalari tiraka
Hariari tiraka hari Hari ari
Hariketa
Hari GaTTunk ari GaTTunk
baGaTTunk hari
artearen arte artearen arte ari
Zitxatoztalakoa, genitxatoztina, gatoztin Lotu
Josi Heldu
bai baGaTTunk ba ote goaz goaztean

Hezkuntza Sistema Propioaren alde

#BideaBadago

URRIAK 4 USURBIL. Kilometroak.
Gattunk



SOS
GUZTONTZAKO KOMUNAK
PARDELAK ALDATZEKO GUNEA
TXOSNA
BAZKARIAK
GOXOKIAK ETA IZOKZIAK
KMK DENDA
DIRU TRUKEA
ERRONKA PROBA
ITURRIA
TALOAK
TONBOLA
KAFAA

ORdua	1 IKASTOLA/AGERIALDE Belardia/Kalea	2 LURRA Kalea	3 ARANERREKA/AGIRREAZPI Belardia	4 TXARAGAÑA/HARANE Belardia	5 KALEZAR Kalea	6 ATALLU/BIZKARRA Belardia/Kalea	7 SANTUENEA Kalea
09:30	HARRERA	ZABALTZE EKITALDIA					
10:00	AURKEZPENA						
10:30			U.K.BILL				
11:00	LABRIT	EGUN OSOAN ZEHAR:	1.PROBA	TOMAXEN ABENTURAK	1.PROBA	GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOAK ANTOLATUTAKO TAILER INKLUSIBOAK KOMUN UBERTSALA	1.PROBA
11:30		KUTXA FUNDazioak ANTOLATUTAKO "GIPUZKOA SOLIDARIOA" ETA "KUTXA EKOgUNEAREN" POSTUAK	SKAKEITAN			LAIN	INORKINAK
12:00	UDARREGIKO IKASLEEN MUSIKA ETA KANTU SAIOA	OMENALDIA ETA LEKUKOA EMATEA	2.PROBA	IRRI HERRI ANITZ	2.PROBA	2.PROBA	PERLAK
12:30		AMAIERA					
13:00	KEZKA	HERRI BARATZETARA BISITA ETA HAURENTZAKO TAILERRAK	BETAGARRI	KORRI, XALTO ETA BRINKO		ODOLAREN MINTZOA	TRIKI TA KE
13:30		JAKOBA ERREKONDORIKIN KONTSULTAK	HOTZIKARA			DESEGIN	
14:00	AUKERAN DANTZA TALDEA	EUSKO LABEL PINTXOAK	IZEBERG	TXANTXARIAK		ANAI-ARREBAK	JOSEBA B. LENOIR GANG
14:30						FINALA	
15:00	OXABI		ESKEAN KRISTO	AMAIERA		HESIAN	OREKA TX
15:30	ESPALOIAN		AMAIERA				AMAIERA
16:00	AMAIERA	AMAIERA			AMAIERA	AMAIERA	

IBILBIDEAN ZEHAR Txistulariak, trikitilariak, dultzaineroak, erraldoi eta buruhandiak, joaldunak, batukada, dantzak, txalapartariak, elektrotxaranga, txaranga... etabar

BAZKARIAK
IKASTOLA GUNEA
 KILOMETROAK MENUA
 - Paella
 - Azkenburukoak
 - Oilasko izterra - Ura + sagardoa + ardoa
15€
 Bazkari txartelak guneke diru-truke postuetan eta jangela salgai.
KAXKOA
 SAGAROTEGIKO MENUA
25€
 Sagardotegiko txartelak guneke diru-truke postuetan eta sagardotegian salgai.

JANARI ESKAINTZA BEREZIA
AGIÑAKO PIPERRAK
 Ikastola, Txaraka gaina eta Santuenean
MUSKULUAK
 Ikastola
ZIKIROA
 Santuenean

EZ AHAZTU!
euskaraz gattunk!
eraso sexistarik EZ!
 Jaiak aske bizi eta gozatu

DIRUZ LAGUNTZEKO
 KutxaBank
 ES56.2095.5001.0091.14354829
 Euskadiko Kutxa
 ES22.3035.0235.22.2350035198

NAFARROA OINEZ
 Urriaren 18an
OHARRAK
 Alkohola zirkuituan sartzea debekatua dago
 Beira zirkuituan debekatua dago
 PRIMARRA PARRA PASATU GABE

Goieko

INDUSTRIA GARBITASUNERAKO SISTEMA ETA PRODUKTOAK

Gu ere gttunk

KILOMETROAK 2015 USURBIL

goieko@goieko.com

www.goieko.com

ALKARTASUNA

Usurbilgo Baserritarren kooperatiba

gttunk

Kilometroarekin bat

Atallu industrialdea 26, Usurbil · T. 943 361 114 · www.alkartasuna.eus

<https://www.facebook.com/alkartasunausurbil>

Kontxako txapeldunak ere «gattunk»

Usurbilgo Udaregi ikastolak harreman estua du herritarrekin. Hezikuntzarako aukera bakarra da herrian, hala ere, bestelako arrazoiengatik lo-tzen zaizkio ikastolari bertako he-

rritarrek. Jaio zenetik, auzolana izan da bertako ezaugarri garrantzitsuenetako bat, eta hori bertako ikasle guztiei transmititu izan zaie. Horrela, lanaren bidez norberaren ametsak egia bihurtzera irits daitezkeela konturatu dira.

Hamaika urtez lanean eta borrokan aritu ondoren, Sarai Li-

zaso usurbildarrak Kontxako Bandera irabazi zuen San Juan taldearekin. Bandera horren zati bat Usurbilera eraman zuen, baita Udaregira ere. Izan ere, bertako ikasle ohia da Lizaso. Egun, 22 urte ditu usurbildarrak, eta bertako ikasle zeneko oroitzapen onak gordetzen ditu.

Ikasi ez ezik, bestelakoak ere franko egin ditu bertan Lizasok. Bertako lagun taldea ere mantentzen du gazteak, arraun taldeko kideekin gehiago ibiltzen den arren. Irakasleriaren aldetik ere, harremana mantentzen du. «Gure belaunaldian talde nahiko bihurria elkartu ginen, eta ziur naiz gutaz oroitzen direla», dio gazteak irribarre artean. Bertako kideen arteko giro hori Kilometroak festan ere igarriko dela uste du, gainera.

ATZERA IKASTOLARA

Oroitzapenak ez ezik, bestelakoek ere lotzen dute Lizaso Udaregira, izan ere, bertan egon da lanean berriki. Lizasok Jarduera Fisikoa eta Kirolaren Zientziak ikasketak burutu ditu. Jarduera Fisikoko irakasle praktikak bertan egin ditu. Zaila ikusten du, halere, bertan lan egiten jarraitzea. «Nahiko gaizki dago lan mundua eta aukera gutxi ikusten ditut». Gustura eman ditu, baina, lan munduko lehenbiziko pausoak bertan.

Gaurko egunerako, ezer programaturik izan gabe iritsi nahi izan du Lizasok. Nahiago izan du egun handia iritsi, eta datorren bezala hartzea. «Egun polita izango da, lehenbiziko aldia izango da Usurbilek horrelako ekimen bat antolatzen duena, eta ilusioa sumatzen da kalean».

Eguneroko zeregin ezberdinegatik lan batzordeetan parte hartu ezin izan duen arren, Lizasok Kilometroekin duen harremana lehenagotik ere badator. «Erronkan parte hartu nuen iaz». Halere, herrikideek eginiko lan eskergarekin, gaurko eguna borobila izango dela uste du gazteak.

Erronka Araba, Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako ikastoletako DBHko gazteentzako proba sorta da. Taldekako proba hauetan ikasleen jakintza orokorra, abilezia fisikoa eta abiadura neurtuko dira besteak beste. Erronkak ikasleari asko emateaz gainera, ikastolen jaiari ere ematen dio, egitarauko ekitaldi berezienetako bat bihurtu baita azkeneko urteetan. Euskarazko giro bikaina sortzen da erronkaren harira.

Abentura ere zaletasun du gazte usurbildarrak. Afizio hori ase nahian, euskal telebistako saio entzutetsu batean parte hartu zuen arraunlariak. 20 urterekin, «El Conquistador del Fin del Mundo» saioko hamar-

garren denboraldian parte hartu zuen, eta bertan lehiakortasunerako duen sen hori ere erakutsi zuen usurbildarrak.

KIROLAK BATUTA

Bizi erdia darama arraunean Sarai Lizaso gazteak. Orain dela hamaika urte hasi zen, Zuhartzara hurbildu eta gero. Egun-goa San Juanen daraman hirugarren denboraldia da; aurretik, Orioko taldean aritu zen. Etiketetik datorkio Lizasori arraunarekiko lotura, izan ere, arraunean ibilitako aita-osabak ditu gazteak. «Askok ikasi dut beraien alboan, eta asko lagun du didate beti». Hauek ere Oriori lotuta zeuden.

Lehorreko herria izan arren, hurbiltasunagatik arraunzalea ere bada Usurbilgo herria. Iñaki Errasti arraunlaria ere bertakoa izateak lagundu izan du horretan; urte luzez Orioko arraunlaria izan da Errasti, eta Astillero, Arkote eta Kaiku taldeetan ere egondakoa da. Babes eta berotasun hori igartzen du Lizasok, bai arraunlari gisa eta bai emakume kirolari gisa. «Herrian jendeak animoak ematen dizkit».

Halere, kaleko babes horri bestelako atxikimendu bat ere falta zaio, ordea: «Orokorrean aurrerapausoak eman diren arren, eta hobera egin den arren, oraindik ere lana dago egiteko».



Sarai Lizaso. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

Kilometroak klik bidez laguntzen

Kilometroen hasierako ideia berrasmartzeko jaio zen Klikmetroak ekimena. Eta aurtengoarekin jada bosgarren aldiz antolatu dute ekimena. Ekimen honen bidez, klikmetroak.kilometroak.eus web atariko bisitari bakoitzak metro bat egiten du, metroz metro, ibilbideari ahalik eta itzuli gehiena eman ahal izateko. Bisitariak egindako metro bakoitzeko, babesleek dirua jarriko dute Kilometroak festaren alde.

Aurten, gainera, aipamen berezia egin nahi diote inklusibitateari. Horrela, klikmetroa atariaren bidez, desgaitasunen bat duten gizabanakoek ere beren metroa egin ahal dute zirkuituan. Klik bat gehiago eginez gizartea kontzientziaztea da asmoa, errealitatearen irakurketa osoa egiteko ideiarekin eta jendartean pertsona guztiei aukera berdinak eskaini ahal izateko, inolako etiketa bereizgarriarik gabe.

Klikmetroak ekimenaren bosgarren edizioa izan da gaurkoan amaituko den hau. Azpeitiko Ikasberri ikastolak antolatu zuen lehena 2011ko Kilometroak jaian. Gipuzkoa mailan burutzen den Internet bidezko ekimen nagusietako bat da; garrantzi are handiagoa du gurean; izan ere, euskara hutsean burutzen den ekimen esanguratsuenetakoa da. Lehenbiziko urte hartan, publizitate arloko Argia saria jaso zuen, egindako lanaren aitortza gisara. Proiektuaren izaera berritzailea azpimarratu zuten. Antolatzaileen



arabera, ekimenaren balorazioa guztiz positiboa izan da urteotan.

Hasierako ikastolen aldeko jaietako izpiritua gaurkotu nahi izan dute, 1977ko Kilometroen filosofiara joz, nolabait esan;

orduko ezaugarriak egungo gizartera egokitu dira, noski. Hasierako jai horietan, egindako kilometroen arabera diru laguntza ematen zuten babesleek. 70eko hamarkadan ikastolak hazi eta finkatu egin ziren arren, sorreratik zuten zulo ekonomikoa estaltzea ez zen lortu. Diru premia zegoen, eta horiek betetzeko iturriak behar ziren halabeharrez.

“Ikastolen mugimendua, dibilen herria” liburuak dioenaren arabera, diru iturriak lortze-

ko halako lehenbiziko saiakera berezia Beasaingo Alkartasuna Lizeoak egin zuen. Bertako gurasoen batzordeko kidea zen Josu Erguin garai horretan; 1969an, Kalifornian (AEB) ikasten ari zela ezaguturiko ideia bat proposatu zuen: ikuskizun ezberdinekin batera, ibilbide bat sortu behar zen, ostean, parte-hartzaile bakoitzak diru kopuru bat ematen zuen ibilbidean egindako kilometroen truke. Gizarte erakundeek antolatutako festa batean ikusi zuen hori. Hasiera batean sinesgogor bazen ere, ideia aurrera atera-

tzea erabaki zuten Beasaingo Ikastolan eta Gipuzkoako Ikastolen Federazioak ere babes eskaini zion asmoari. Horrela, 6-8 hilabetez astero bildu eta mota guztietako ekintzak antolatu ondoren, ikastolen aldeko lehenbiziko festa erraldoia ospatu zen Beasainen, 1977ko urriaren 16an. Jai horri Kilometroak izena eman zioten. Jendetza bat zuen bertan, eta lagun eta talde ospetsu askok parte hartu zuten; bakoitzak bere babeslea zuen, eta adibidez, “Egin” egunkariak Jose Miguel Maiz korrikalaria babestu zuen.

Inklusibitate dekalogo

Kilometroak 2015 jaiak Gipuzkoa inklusiboago baten alde lan egiteko deia luzatu du, eta hori gauzatzeko, dekalogo bat landu dute antolatzaileek. Hauen arabera, lehenik eta behin pertsonen ezartzen zaizkien etiketak gainditu behar direla azaldu dute; hau da, lagun bakoitzak gaitasun batzuk dituela, eta ezberdintasun horietan oinarritutako jendarte inklusiboa eraiki behar dela.

Horrekin batera, «arazoak dituzten» eta «arazorik ez dugunon» arteko dikotomia hori hausteko deia luzatu dute.

Dekalogoko hirugarren puntuaren arabera, herritar gisa aukera-berdintasun eskubidea bermatu beharra dago, legeetatik harago. Halaber, bazterkeria mota oro alboratzeko da, honen jatorria dena delakoa izanda ere. Jendartean

bezala, lan-merkatuan ere beharrezkoa da eraldaketa.

Bukatzeko, jendarte inklusiboa eraikitzeke tresna nagusiak sentsibilizazioa eta pedagogia dira, eta horretarako komunikabideek zein unibertsitateek ere garrantzi berezia dute. Gaurko egunerako harturiko konpromisoak egunerokoan txertatzeko eskaera egin dute antolatzaileek.



Gipuzkoako
Foru Aldundia

Euskararen alde, ba **g!UNK**
KMK 2015 USURBIL URRIAK 4

EROSKI kilometroak-ekin



Urriak 4
Zatoz Usurbilen ospatuko den
KILOMETROAK JAIRA!



www.eroski.es

Ohiko laguntzailea

